

## Prensa dosierra

*Bizkaiko bertsolaritzaren oinarria indartzea du helburu nagusi Bizkaiko Taldekakoak. 2017an egin zen lehenengoz, 2019an ere bai, eta hirugarren edizioa izango da aurtengoa; 23 taldek eman dute izena, eta fase bitan jokatu da txapelketa; finala, maiatzaren 28an izango da.*



- Sarrera
- Helburuak
- Taldeen osaketa
- Izena eman duten taldeak: aniztasuna
- Epailletza
- Gai-jartzailletza
- Egitura eta sailkapena; lehenengo fasearen zozketa
- Ariketak
- Datak
- Informazio bideak

## Sarrera

Bizkaiko Bertsozale Elkarteak Bizkaiko bertsolaritzaren ekosistema osoa, eskualdez eskualde, eta etenik barik elikatzeko helburua dauka. Baita, bertsogintzaren oinarria motibatu, finkatu eta garatzea ere.

Taldeakakoaren bitartez oinarrian eragin gura da, hau da, bertso eskolak eta eskualdeak indartu gura dira. Horretarako, guner ludiko bat eskaini gura du Elkarteak. Taldeakoa giro informalean eta jai-giroan gauzatzea da helburua. Batez ere, bertsolari hasi berriei plazarako bidea erraztea, eta arrazoi desberdinengatik ohiko Txapelketan parte hartzeko motibaziorik ez dutenei aukera desberdin bat eskaintzea. Horrez gain, antolatzaile, epaile eta gai-jartzaile berrien sorrera ere bultzatuko da. Eta zelan ez, eskualdeen arteko harremana sendotzea da asmoa.

## Taldeakakoaren helburuak

Esan bezala, Taldeakakoaren helburua Bizkaiko bertsolaritzaren oinarria eta, era berean, eskualdeak aktibatu eta indartzea da.

Zehatz esateko, hurrengo taldeak dira indartu gura direnak:

- Bertso eskolak
- Talde teknikoak: gai-jartzaileak, epaileak, antolatzaileak.
- Bertsolariak: bereziki euren burua Bizkaiko Bertsolari Txapelketatik kanpo ikusten dutenak (hasi berriak, plazak utzita dituztenak...)
- Zaleak

## Taldeen osaketa

Taldeak, gutxienez, sei lagunekoak izango dira, nahiz eta 8-10 ingurukoak izatea gomendatzen den. Saio bakoitzean ondorengo lanak edo funtzioak egongo dira, kanporaketa bakoitzeko:

- 3 bertsolari
- 1 gai-jartzaile
- 1 epaile
- 1 laguntzaile

Partaide gehiago ere eduki ditzakete, baina saio denetan egon beharko dute, gutxienez, sei lagunek goian aipatutako funtzioak betetzeko.

## TALDEAK

Guztira 23 taldek eman dute izena Taldekakoan (aurrekoan baino talde bi gehiago), eta ia 200 parte-hartzaile.

Parte hartzaileen perfila anitza da oso: oso gazteak direnak, beteranoak, aspaldi bertsotik aparte ibili direnak, hasiberriak, Bizkaiko Txapeldunak, Txapelketetan parte hartu dutenak, edo sekula parte hartu ez dutenak. Helburua aniztasun hori lortzea zen, eta lortu da.

Gainera, Bizkaiko eskualde guztietako ordezkaritza dago (taulan, zehaztuta, herria edo eskualdea).

Hurrengoak dira Taldekakoan izena eman duten taldeak:

Taldearen izena	Herria edo eskualdea	Parte hartzaileak
Akerbeltzen Antxumak	Markina-Xemein	Jone Antsotegi, Joseba Sololuze, Josune Aramendi, Maddi Ibaibarriaga, Nahia Ibarzabal, Nerea Ibarzabal, Sara Asenjo
Azkena eta etxera	Busturialdea	Alain Cubero, Ander Elortegi, Beñat Bilbao, Imanol Ziluaga, Iñaki Aurrekoetxea, Jokin Antsotegi
Basordako piratak	Uribe Kosta	Erlantz Iburguengoitia, Gabi Basañez, Jagoba Pereda, Jon "Txontxe" Etxebarria, Maddalen Markaida, Peru de Pedro
Beethovenen belarriak	Busturialdea	Ander Arrien, Iker Uriarte, Janire Arrizabalaga, Jon Arano, Koldo Gezuraga, Leire Garatxena
Estropozu	Arrigorriaga	Arkaitz Zipitria, Andere Molinuevo, Iker Garitagoitia, Karlos Molinuevo, Maider Altuna, Peio Molinuevo
Ez dakit ba!	Busturialdea	Eneko Aldana, Koldo Muñiz, Lore Barrena, Mikel Retolaza, Moises Enbeita, Onintza Enbeita
Far westeko bertsolariak	Enkarterri-Ezkerraldea	Aitor Arrutia, Ander Ezeiza, Asier Alcedo, Idoia Anzorandia, Imanol Arrutia, Ion Barrocal, Jon Martinez, Txema Perez
Gerri maltxurrak	Uribe Kosta	Jare Torralba, June Diaz, Kerman Diaz, Maialen Lago, Mikel Arrate, Naroa Torralba, Oier Errementeria, Oihan Diaz, Paule Loizaga, Peio Lago, Unai Mendiburu
Itallen	Larrabetzu	Arrate Gaztelu, Beñat Barainka, Etxahun Lekue, Iskander Euba, Joseba Ortuzar, Julen Gaztelu, Leire Etxebarria, Malen Amenabar, Maripi Agirre, Patxi Gezuraga, Peru Berazategi, Sergio Peña
Kantakunek	Busturialdea	Asier Galarza, Ibai Amillategi, Aitor Etxebarriazarraga, Zihara Jainaga, Antton Gorriño, Inazio Gonzalo
Koipelustriek	Durungaldea	Aitor Bizkarra, Bittor Altube, Eneko Barruetabeña, Gorka Pagonabarraga, Jon Zialzeta, Txaber Altube
Kristiñanak	Durungaldea	Araitz Katarain, Irune Basagoiti, Iruri Altzerreka, Kristina Mardaras, Leire Vargas, Maiora Altzerreka, Miren Amuriza
Laukijjek	Durungaldea	Ander Elorriaga, Ander Sarriugarte, Bittor Saterain, Erika Lagoma, Igor Galarza, Paulo Salterain, Unai Iturriaga
Leioatik Leioara	Leioa	Alpon Sardon, Beñat Vidal, Galder Bilbao, Inazio Vidal, Jon Ortiz, Peru Vidal, Tomas Lakarta, Urtzi Gorostiaga, Xabier Sainz de la Maza

<b>Poto Baptist School</b>	<b>Lekeitio</b>	Aissa Intxausti, Aitor Arrizubieta, Aitor Ruiz, Garazi Navarro, Xabat Gallettebeitia
<b>Potojorri</b>	<b>Bilbo</b>	Ainhoa Arregi, Ainhoa Markinez, Ana Picallo, Ander Altuna, Ander Anakabe, Axier Goñi, Edu Castaño, Enare Muniategi, Javier Martinez "Guti", Joseba Barandiaran, Mikel Aiartzaguena, Mikel Galarza
<b>Santutxuko Bertso Eskola</b>	<b>Santutxu</b>	Fernando Otsoa, Haizea Telleria, Ibon Ajuriagojeaskoa, Iker Uribarren, Irati Erkizia, Joserra Bilbao, Julene Iturbe, Maddi Askaiturrieta, Oihana Bartra
<b>TAKE IT easy!</b>	<b>Mungia</b>	Ainhoa Gorostiaga, Aitor Esteban, Asier Legarreta, Garazi Mendoza, Izaro Bilbao, Markel Enzunza, Mikel Goiriena, Olaia Cancelo
<b>TAKETA lez</b>	<b>Mungia</b>	Eneko Elorduy, Ibon Larrazabal, Itxaso Baraiazarra, Jokin Arriola, Jone Larrinaga, Kattalin Arriola, Nekane Ciriero, Oier Gorostiaga
<b>Topera</b>	<b>Arratia</b>	Amaiur Atxa, Amaiur Irazabal, Igor Menika, Illart Gumuzio, Iñaki Iturriotz, Juanjo Respaldiza, Unai Intxausti
<b>Tosu bizirik</b>	<b>Uribe Kosta</b>	Aitor Fernandez de Martikorena, Aritz Landeta, Beñat López, Daniel de Miguel, German Kortabarría, Iñigo Kortazar, Joanes Igeregi, Josu Landeta
<b>Urruxarrak</b>	<b>Iurreta</b>	Alaitz Areitio, Eneko Abasolo 'Abarkas', Gorka Lazkano, Hodei Zenikaonandia, Juan Mari Areitio, Justo Alberdi, Malen Nazabal, Naroa Jaio, Uxue Esturo, Peru Madalena
<b>Zornotzako Bertso Oskola</b>	<b>Zornotza</b>	Alain Barañano, Ander Aldazabal, Ander Gerrikaetxebarria, Ane Alegria, Beñat Alonso, Beñat Romero, Iñaki Iza, Xabier Irakulis

## Epailletza

Talde bakoitzak epaile bat edukiko du kanporaketa bakoitzean. Horrez gain, publikoaren iritzia ere kontuan hartuko da.

Beraz, saio bakoitza puntuatzeko hiru taldeetako epaileen balorazioa gehi publikoaren balorazioa hartuko dira kontuan. Saio bakoitzaren ondoren, hiru taldeetatik –edo bitik-, ze taldek egingo duen aurrera erabaki beharko dute denen artean.

## Gai-jartzailletza

Saio bakoitzeko gaiak hiru taldeetako gai-jartzaileen artean pentsatuko dituzte.

Aurkezle beharra kantatzen ari ez den taldeko gai-jartzaileak egingo du.

## Egitura eta sailkapena.

Fase bi izango ditu Taldekakoak: kanporaketa fasea eta finalaren eguna. Kanporaketa faseko saio gehienak hiru taldeka jokatuko dira, eta kanporaketa bakoitzeko talde bat pasatuko da finalera. Kanporaketa bakoitzean hiru saio

labur izango dira: lehenengo taldea bigarrenaren kontra, bigarrena hirugarrenaren kontra, eta hirugarrena lehenengoaren kontra. Saio bakoitzetik talde batek egingo du aurrera.

Finalaren egunean hiru finalaurreko eta finala jokatu dira. Finalaurreko bakoitzean, ordean, 3 taldeek saio bakarra jokatu dute eta irabazlea sailkatuko da finalera.

Hona hemen, zozketak eman dituen saioa, eta egitura osoa:

KANPORAKETAK		FINAL EGUNA	
1	TAKE IT easy!	A	1 saioko irabazlea
	Laukijjek		2 saioko irabazlea
	SANTUTXUKO BERTSO ESKOLA		3 saioko irabazlea
2	Beethovenen belarriak	B	4 saioko irabazlea
	TOPERA		5 saioko irabazlea
	Azkena eta etxera		6 saioko irabazlea
3	Estropozu	C	7 saioko irabazlea
	Tosu bizirik		8 saioko irabazlea
	KOIPELUSTRIEK		gainontzeko taldeen artean zozketaz
4	Kantakunek	FINALA	A saioko irabazlea
	POTOJORRI		B saioko irabazlea
	TAKETALEZ		C saioko irabazlea
5	ITALEN		
	Urruxarrak		
	FAR WESTEKO BERTSOLARIAK		
6	Kristiñanak		
	EZ DAKIT BA!		
	Poto Baptist School		
7	Leioatik Leioara		
	BASORDAKO PIRATAK		
	ZORNOTZAKO BERTSO OSKOLA		
8	Akerbeltzen antxumak		
	Gerri maltxurrak		

## Lehenengo fasearen saioak

Kanporaketetako datak eta lekuak taldeek lotu dituzte.

TALDEAK		SAIOAK
A	ITALLEN	Martxoak 25, barikua
B	Urruxarrak	Barakaldo
C	FAR WESTEKO BERTSOLARIAK	19:30
A	Leioatik Leioara	Apirilak 9, zapatua
B	BASORDAKO PIRATAK	Zornotza
C	ZORNOTZAKO BERTSO OSKOLA	
A	TAKE IT easy!	Apirilak 29, barikua
B	Laukijjek	Mungia
C	SANTUTXUKO BERTSO ESKOLA	
A	Beethovenen belarriak	Apirilak 30, zapatua
B	TOPERA	
C	Azkena eta etxera	
A	Estropozu	Apirilak 29, barikua
B	Tosu bizirik	Getxo
C	KOIPELUSTRIEK	
A	Kristiñanak	Apirilak 29, barikua
B	EZ DAKIT BA!	Iurreta
C	Poto Baptist School	Oromiño auzoa
A	Akerbeltzen antxumak	Apirilak 29, barikua
B	Gerri maltxurrak	Markina-Xemein, Buztarri taberna.
A	Kantakunek	Maiatzak 13, barikua
B	POTOJORRI	Arrigorriaga
C	TAKETALEZ	

## Ariketak

Talde antolatzaileak ariketen proposamen bat garatu du, baina proposamen hutsa da. Hau da, kanporaketa bakoitzean parte hartzen duten hiru taldeen esku geratuko da ariketak adostea, hau da, hiru taldeak ados ipintzen badira, beste ariketa batzuk egiteko aukera daukate.

### Ariketen proposamena:

- Hasierako agur puntuagarria: saio bakoitzean talde bakarraren agurra (gehienez 3 minutu). Adibidez:
  - A-B saioan A taldearen egurra
  - C-A saioan C-ren agurra
  - B-C saioan B-ren agurra
- 8H ofiziotan (3 bertso); Talde bakoitzetik bat
- 4 oinak (bertso 1) eta azkena emanda (bertso 1); Talde bakoitzetik bat
- 8t ofiziotan (3 bertso); Talde bakoitzetik bat
- Bakarka (2 bertso); Gehienez, 10H. (gaia, objektua, hitza, kanta emanda). Talde bakoitzetik bat
- Potokumeak. Taldeko 3ren artean. Bertsolari batek bertsoa bota ahala, beste bertsolari biek, txandaka, oinak aurreratuko dizkiete, 8 oin (bertso 1). Gaia, objektua, hitza edo kanta emanda.
- Puntuka. Talde bakoitzetik bat. 8t. 4 bertso osatu arte (bakoitza birritan hasi).
- Amaierako agur puntuagarria. Gehienez, 10H. Talde bakoitzetik bat

## Datak

Kanporaketak maiatzaren 15era bitarte jokatu dira, taldeen berain artean adostutako egun eta lekuetan. Kanporaketa denak jokatuakoa jakingo da zein taldek kantatuko duten finalean. Finala maiatzaren 28an jokatu da, Bizkaiko eskolarteko finalarekin batera Larrabetzun.

## INFORMAZIORAKO BIDEAK

Txapelketari buruzko informazioa hainbat bidetatik eskura daiteke.

- Webgunea: [www.bertsozale.eus/bizkaia/taldekakoa](http://www.bertsozale.eus/bizkaia/taldekakoa)
- Sare sozialak:
  - Facebooken Bizkaiko Bertsozale Elkartearen orrialdea.
  - Twitter: Bizkaiko Bertsozale Elkartea (@bbertsozale) #taldekakoa
  - Instagram: Bizkaiko Bertsozale Elkartea
- Kontaktua: [bizkaia@bertsozale.eus](mailto:bizkaia@bertsozale.eus)